



ALEA

arabako aldizkaria

2015-11-06 OSTIRALA
37. ZENBAKIA
URTEAN 50 EURO
WWW.ALEA.EUS



HARROBIA, BOZGORAILUAN

Arabako musika maketen lehiaketa, arrakastatsu

Zuhaitz motzen errekorra Gorbeian

Enbor bereziak natur parkean

Guardiako gaztelu ahaztua

Dorrea berpizteko proposamena

ehu**kultura**

--- Unibertsitate Pabilioa ---

--- 19.00 --- Doan ---

Azaroak **-11-** Asteazkena



RIVULETS

Azaroak **-18-** Asteazkena



LA BIEN QUERIDA



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Alea

37 zk.

Azaleko argazkia:
Deep Links taldeko
kide bat.



HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu,
harpidetu zaitez. 50 euroren truke,
44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus

- 4 Arabako maketa lehiaketan, harrobia indartsu.
- 8 Harrera familiak lortzeko kanpaina abiatu dute.
- 12 Iritzia: Edu Zelaieta Anta, Itziar Rekalde eta Itsasegia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: aurrekontu proposamenean, murrizketak.
- 16 Aiara: espioia izan zen jeltzale arabar baten misterioa.
- 17 Gorbeialdea: lepatutako zuhaitzen artean.
- 18 Lautada: familia eredu ezberdinak aztertuko dituzte.
- 19 Añana: sahararren alde, Bakegunea Kuartangon.
- 20 Mendialdea: San Martin azoka Kanpezun, igandean.
- 21 Trebiñu: konderriko eta Argantzuneko ludotekak, martxan.
- 22 Arabako Errioxa: Guardiako gaztelua ezagutarazteko lana.

HAMAICA SALTSA

- 24 Gasteizko Gaztetxeak dokumental berria aurkeztu du.
- 26 Gazteak Plazara, bertsozale gazteak oholtzara eramateko.
- 27 Zozketak.
- 28 Postontzia.
- 29 Denbora-pasak.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.
Escola kalea, 10. 13. bulegoa,
01001. Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetza
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Itziar Hormilla, Edu Zelaieta, Itziar Rekalde, Iker Etxaniz, Estixu Ugarte, Aitor Alvarez, Arabako Bertsozale Elkartea.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Harrobi emankorra

Deep Links taldeak irabazi du Arabako musika taldeen lehiaketa. Finalean parte-hartzaileek erakutsi zuten kalitateak eta ilusioak agerian utzi dute bertako musika harrobia indartsua dela. **ITZIAR HORMILLA** GASTEIZ

Kemena, urduritasuna eta batez ere ilusioa nagusi ziren Musika taldeen lehiaketako bederatzigarren edizioako finalaren entseguetan. Arabako Foru Aldundiak antolatuta, finalera heldu diren zortzi taldeen kontzertuak eskaini zituen urriaren 28an eta 29an Jimmy Jazz aretoak. Azkenik, Deep Links taldeak eraman zuen 6.000 euroko saria, baina guztiek bat egiten dute: sari bat da finalera heltzea eta Koroatze kalekoa bezalako plaza batean jotzea.

Ezezagunak eta askotan hasiberriak diren talde hauentzat musika munduan leku bat lortzea zaila da oso. Hartara, musikari berriak ezagutzera emateko eta euren ibilbide musikala bultzatzeko asmoz martxan jarri zuen Arabako Aldundiak lehiaketa hau orain dela bederatzirte. Horren bultzada jaso dute Kodigo Norte, Similar Interests, Die Hard edo Los Fontane bezalako taldeek. Aurten zortzi talde lehiatu dira finalean: She'Sophie, Jefe Chirpa, HRS, Chalo VG, Deep Links, Ghost Number & His Topsy Gypsies, El Malick eta Geometrica. Elkarren artean oso estilo ezberdinetakoak. Rocketik hasita, folk-eraino, rap-a edo indie-a ahaztu gabe.

Roberrek, Javik eta Jesusek osatutako Deep Links talde irabazleak britainiar pop-rockaren eragina duen musika egiten du eta "zuzenean

37

TALDE

la berrogei banda aurkeztu dira Arabako maketa lehiaketara, eta zortzi izan dira finalistak: Jefe Chirpa, Geometrica, Ghost Number & His Topsy Gypsies, She'Sophi, HRS, Deep Links, El Malick eta VG.

"Taldeontzat aukera gutxi dago gaur egun, eta hori da hain zuzen eskatzen duguna: aukerak izatea"

CHALO ALEGRIA VG TALDEA

"Lehen erraza zen kontzertuak lortzea; orain latzagoa da, leku gutxiago dago eta zailagoa da"

ASIER BERMEJO JEFE CHIRPA TALDEKO KIDEA

ederki emandako musikak" eman zion garaipena, epaimahaiaren esanetan. Taularatzea nabarmentzeaz aparte, "musikari onak dira, argi

dutenak zer musika mota egin nahi duten eta zelan eman jendeari. Ezohiko apustua Arabako agertokietan" gaineratu zuen.

Adituen hitz "eder" hauek indarra eman die iaz sortu eta hasieran The Cure edo The Police musika taldeen bertsioak egiten zituen Deep Links-eko hirukoteari. "Inbertitutako lana, dirua, denbora eta esfortzua ez da alferrikakoa izan", dio azken honek. Baina benetan asetzen gaituena jendeari gure musika gustatzea da". Are pozgarriagoa, garaipena eman zien kontzertua egin duten lehena izan dela jakinda. Musika munduan etorkizuna "beltz" ikusten duten arren, hirukotea asmo handikoa da eta helburua maila profesionalean aritzea bada ere, gauzak lasaitasunez eta "bere garaian" egingo dutela adierazi dute. Muse eta Coldplay britainiarrak erreferente bezala izanik jarraituko dute bere pasioa garatzen, taldeko gitarra Javik Silvio Rodriguez eta Los Panchos bezalako artistengatik jasotzen duen eraginaz lagunduta.

Jefe Chirpak, aipamen berezia

Lehenengo saria ez, baina antolatzailleen aipamen berezia lortu zuen Jefe Chirpak, taldearen zuzeneko emanaldia "bikaina" izan zela azpimarratuz. Orain hiru urte kontzertuak eskaintzen hasi zen talde honek bi disko ditu kalean. Taldeko gita-



Deep links taldeak irabazi du aurtengo lehiaketa.

I. HORMILLA



HRS laukotea, Kutxi kaleko taberna batean.

I. HORMILLA



She's Sophie azken zortzi finalisten artean egon da.

I. HORMILLA



Jefe Chirpak aipamen berezia lortu du.

I. HORMILLA



Ghost Numberrek amerikar folk doinuak eskaini ditu.

I. HORMILLA

rra-jotzaile Asierrek azaldu bezala, hasieran soilik musika jotzeko elkartu ziren. Azkenean, ordea, taldea osatu zuten. Bere musika estilo bakar batean kokatzeko zailtasuna dute. Rock alternatiboaren barruan sar daitekeen arren, taldekideek kontzeptu oso zabala dela deritzote eta behin norbaitek “rock gastriko” estiloa dutela esan ziela aitortu dute.

Hasiberrientzat aukera

Bertako talde hasiberriei aukera emateko lehiaketa hauek ezinbestekoak direla azaldu dute ALEA-rekin mintzatu diren sei taldeek eta musika munduan hasteko zailtasunak nabarmendu dituzte, gaur egun batez ere. “Orain dela hamar urte, oso erraza zen kontzertuak lortzea. Edonon zegoen taberna edo gaztetxe bat kontzertua emateko. Orain askoz latzagoa da, leku gutxiago dago eta zailagoa da gauzak aurkitzea”, adierazi du Jefe Chirpako Asierrek. Iritzi berekoa da VG talde raperoan aritzen den Chalo: “Aukera gutxi dago. Eta hori da, hain zuzen ere, eskatzen duguna, aukerak izatea. Baina aldi berean, ez dut nahi inork ezer oparitzea”. Bakarrik finalera iristea sari bat izan dela dio, “nola-bait urte askotan egindako lanaren

"Lehiaketa irabaztea bigarren mailan geratzen da, kontzertua emateko aukera duzunean"

MARTA VILLAR HRS TALDEA

eta esfortzuaren aitortpena delako; guk egiten dugun musika estiloan gainera zailagoa da, Gasteizen estilo hau ez baita gehiegi mugitzen”.

Horregatik, zuzenekoak egiteko aukera izatea sari gisa hartu dute finalistek. “Poz-pozik gaude Jimmy Jazz jotzeko areto bikaina delako”, azaldu dute HRS taldeko lagunek. “Lehiaketa irabaztea bigarren maila batean geratzen da kontzertua emateko aukera duzunean”. Helburua ondo pasatzea izan zela gaineratu dute orain bost urte eratu zen Hard Rock Sound taldekoek. Duela bi hard rock musika estiloa nagusi duen diskoa kaleratu zuten, heavy metal klasikoaren eraginarekin.

Musika egitea, jolas

Bizitzaren esparru askotan gertatzen den bezala, askotan afizioak ogibide bilakatzen dira eta maila profesio-

nalera salto egitea amesten dute musika talde askok. “Gehienetan, jolas bat bezala hasten da”, dio VG taldeko Chalok, “baina gerora, gauzak seriootasunez egiten hasten zara, estudio batera sartu... baina beti ere, ondo pasatzeko grina galdu gabe”.

Bere aldetik, Geometrica taldeak argi dauka profesionalak izatera heltzea gustatuko litzaiokeela. “Gure helmuga hori da baina oraindik lan egin behar dugu, taldea ezagutzera eman”, gaineratu zuen Geometricako Davidek. Hirukote hau azken aldian bogan dagoen indie rock musikan murgiltzen da, Vetusta Morla bere erreferentziatzako taldeetako bat izanik. 2014an sortua, lehiaketaren finalean emandakoa bere azken zuzenekoak izango da, “orain disko berria grabatu behar dugulako”.

Talde finalistek musika estilo batetik bestera salto egin zuten zuzenekoetan eta guztien artean, bere janzkeragatik eta estiloagatik nabarmendu zena Ghost Number & His Topsy Gypsies taldea izan zen. Swing, country eta *rootless* folk doinuekin argi asko utzi zuten Arabako musika taldeen harrobia kalitatezkoa dela, baina batez ere, anitza.

INTERNETEN: HIRINET.NET



HAUR ETA GAZTEEN JARDUERETARAKO HEZITZAILEENTZAKO GIDA

KIROLA | KULTURA | AISIALDIA | JANTOKIA



EUSKARAZ IKASTETIK, EUSKARAZ BIZITZERA GOZATU EUSKARA!



Okina, urteetako ezagutza eta lanaren transmisioaren emaitza

Artisauaren ogibidea da okinarena; lan gutxi mantendu dira hain fidel sorreratik, teknologia berrien erabilera gorabehera. Eskolan arlo horretako ezagutzarik jaso gabe, okindengian bertan ikasi dute ofizioa. ARTEPAN



Txema Pascual okina, Artepantek Gasteizen duen gozotegietako batean lanean. ARTEPAN

Gaur egungo gazteei ez zaizkie erakargarri egiten errementari, jostun, kedar-kentzaile, sereno, zapatari, eltzegile eta gisa horretako lanbideak. Antzinako kontuak direla iruditzen zaie. Ematen du ez dutela lanbide ezezagunik nahi.

Aldiz, beste lanbide batzuk moda-modakoak dira; esaterako, une honetan, sukaldariarena unerik gorenean dago. Ikusi besterik ez dago zer nolako oihartzun mediatikoa izaten ari den: telebistako programak, lehiaketak, realityak... denetik dago sukaldaritzaren inguruan, profesionalentzat zein zaleentzat.

Baina... zer gertatzen da okinekin? Zer pentsatzen dute gutaz? Non kokatzen da gure lanbidea?

Ezer baino lehen, gauzak argi utzi behar ditugu. Gaur egun egiten den ogi guztia ez da okinek egindakoa. Ogiaren industria handiek ez daukate zerikusirik orain hizpide hartu

dugun lanbidearekin. Okinarena artisau lanbidea da erabat. Gainera, lantzen den produktuaren ezaugarriak direla-eta, tokian bertan burutzen den lana da, ogia kontsumituko den herrian bertan edo inguruetan.

Lanbide ezezaguna eta esker txarrekoa da okinarena; ez zaio dagokion duintasuna aitoritzen eta, neurri batean, gure erantzukizuna da hori. Gaur egun, oraindik ere, norbaitek okinei buruz

Gazteei ikusarazi behar diegu irina, gatza eta ura hiru osagai baino askoz gehiago direla

hitz duenean, jendeak lanbide gogor bat dela imajinatzten du; zikina, bero handia pasatzen dena, gauez egin beharrekoa... Inork ez du irudikatzen Lan dibertigarri eta gozagarri gisa: oreka egi-

Antzinatik datorren herentzia bat jaso dugu eta gure ardura da horri balioa ematea

tea, eskuez forma ematea, hartziduraren magia, usain gozoak... Okina, salbuespenak salbuespen, tipo arraroa da; jendea parrandatik bueltan datorrela lanera joatean dena, goiztiarren seriotasunarekin, isilean. Okina pertsonaia misteriozkoa da, beraz, eta bere lanaren inguruan ezagutza falta handia dago.

Ofizioari, fidel

Okinaren lanbidea zera da, milaka urtetako ezagutza eta prozeduren transmisioaren emaitza. Lan gutxi mantendu dira hain fidel sorreratik, teknologia berrien erabilera gorabehera. Pazientzia behar da, lehengaiekiko eta bezeroenganako errespetua.

Guzti hori bertatik bertara ikasia okindegian bertan, laguntzaile gisa lanean hasten zirenean, eskolan arlo horretarako ezagutzarik jasotzeko aukerarik izan gabe.

Beste herrialde batzuetan ez bezala, hemen gazteek ez dute lanbidea modu arautuan ikasteko aukerarik, eta are gutxiago okin irakasle batekin ikasketa garatzeko aukerarik. Ez diogu garrantziarik ematen ogia egin duen langilea profesional ona izateari. Autoa konpontzerako eraman behar badugu, esaterako, profesional on batengana eramateaz arduratuko gara, baina okinaren kasuan, bere prestakuntza ez dugu kontuan hartzen.

Iparraldean, adibidez, pentsaezina da hori. Baionan badago prestakuntza zentro bat eta bost urte arteko ikasketa-prozesua egin daiteke. Gazteei ikusarazi beharko genieke irina, gatza eta ura hiru osagai baino askoz gehiago direla; aukeraz betetako mundu bat zabaltzen digute probak egin, ikeritu eta milaka urteko elikagai magiko bat sortzeko. Antzinatik datorren herentzia bat jaso dugu eta gure ardura da hori mantendu, hobetu eta etorkizunera begira ere balioa ematea.

Agian, honen ostean, eskaileran okinarekin gurutzatzen garen hurrengoan beste era batera ikusiko dugu, eta egunero egiten duen ahalegina gehiago baloratuko dugu.

ARTEPAN

Jesus Guridi 2.

01004 Vitoria-Gasteiz

945278888

facebook.com/
artepanvitoriagasteiz

AINIZE BALENCIAGA ETA ROSALEN SANCHEZ

HARRERA AMA ETA TEKNIKARIA Arabako Aldundiak kanpaina aurkeztu berri du behar bereziak dituzten umeen harrera familiak bilatzeko. Rosalen Sanchez teknikariak eta Ainize Balenciaga harrera familia bateko amak azaldu dituzte nondik norakoak. **A.**

PEDRUZO, J. A. SANTOS, I. VICUÑA ETA A. AMENABAR GASTEIZ

"Anai-arrebak hartzeko familiak behar ditugu"



**Ainize Balenciaga eta
Rosalen Sanchez, Radio
Vitoriako estudioetan.**

Arabako Aldundiak kanpaina bat abiarazi du hezkuntza beharrian bereziak dituzten anai-arreba taldeak eta adingabeak hartuko dituzten familiak bilatzeko. Gaur egun Araban 24 adingabe daude gizarte ongizaterako foru erakundearen tutoretzapean familia baten zain. Ainize Balenciagak, harrera familia bateko amak, eta Rosalen Sanchezek, harrera familietako unitateko buruak, kanpainaren ingurukoak gerturatu zituzten asteartean Hirinet FM irrati saiora ALEAren elkarlanean.

Rosalen, zer dela eta abiatu duzue kanpaina? Zein da egoera? Zein da beharra?

Rosalen Sanchez: Familia ugari ditugu baina asko behar ditugu oraindik. Kanpaina honekin adierazi nahi dugu familia asko daudela Gasteizen, Araban, lan hau egin ahal dutenak, gure umeak zaindu ditzaketena. Ardura hau azaltzea da helburuetako bat; gizarteari helarazi behar diogu mezu hori, denon ardura dela eta momentu honetan familia bila ari garela.

Harrera familiak ari garenean ez gara adopzioaz ari.

R.S.: Ez, ez. Hasieratik bereiztu behar da. Adopzioarekin amatasuna eta aitatasuna da lortu nahi dena eta, beste kasuan, harrera familia-rra da denboraldi baterako laguntza. Familiarekin harremana duen ume bat zaindu behar duzu, familia biologikoarekin harremana duena.

Urtero egoten da harrera familien beharra, ezta?

R.S.: Bai, halaxe da. Une honetan 90 familia baino gehiago ditugu. Ume batzuk joaten zaizkigu familietara baina berriz beste batzuk sartzen zaizkigu horiek atera baino lehen, beraz beti beharra dago, eta behar desberdinak sortzen dira gaur egun gainera; familia desberdinak behar ditugu denetarako.

Ainize, zehazki zure kasuan hiru urteko alaba duzu etxean iaztik.

Ainize Balenciaga: Iazko apirila bukaeran etorri zen gure familiara eta urte eta erdi daramagu harekin.

Zer dela eta hartu zenuten harrera familia izateko erabakia?

A.B.: Uste dut hori biografikoki momentu oso konkretu batean sentitu genuela nire senarrak eta biok. Guk beste bi seme dauzkagu zaha-

"Semeek ere sentitzen zuten gure etxean logela bat zegoela hutsik, ohe bat, gogoa zutela..."

A. BALENCIAGA
HARRERA FAMILIA

"Kanpaina honekin gizarteari helarazi behar diogu hau denon ardura dela, familia bila ari garela"

R. SANCHEZ
HARRERA FAMILIAKO TEKNIKARIA

rragoak eta sentitzen genuen gizarte honetan gure harritxoak edo apor-tazioa hortik egin behar genuela. Familia bat sortua dugu, benetan familia pribilegiatua sentitzen gara eta aterpe horretan ume batek lekua baldin badu, ongi etorria.

Zer suposatu du zuentzat?

A.B.: Gauza asko, urte eta erdi bakarrik izan arren urte oso intentsoa eta oso aberatsa izan baita. Suposatu du gure familia sistema berriro moldatu behar izan dela, eta gure semeak moldatu behar izan direla egoera berri honetara.

Nola hartu dute haiek?

A. B.: Era oso naturalean. Guk planteatu genuen bazeudela guraso batzuk gaixo edo ezin zutenak aurre-

ra jarraitu beren seme-alabekin eta bitarte horretan familia behar bat zutela ume horiek. Eta beraiek ere sentitzen zuten baietz, gure etxean lekua zegoela, bazegoela beste logela bat, ohe bat eta gogoa beste ume-txo batekin egotekoa. Gero hori gauzatu egin behar da egun batetik bestera, eta nik uste hor batez ere zaharrenak –hamar urte zituen– beste heldutasun bat zuela eta gaztetxoek –sei urte zituen– krisialditxo bat izan zuela eta amaren babesa behar izan zuela. Baina gaur egun beraiek ere esaten dute euren bihotzeko arrebatoa dela eta, noski, daukate beren kariñoak eta beren liskarrak, beraien artean dauzkaten bezalaxe.

Baliteke inoiz haur horiek familia biologikoarekin bueltatu behar izatea. Nola prestatu behar zara momentu horretarako?

A. B.: Ezinbestekoa da hori kontuan hartzea momentu oro. Guk argi geneukan pauso hori emateko gai ez baginen ez genuela harrerako ume bat hartuko, adopzio batera joko genuke edo beste aukera batzuk aztertuko genituzke. Argi geneukan benetako apustua hortik joan behar zela; momentu jakin batean haur honek bere bidea egin eta beste nonbaitetik joan behar baldin badu, bere amarekin bidea egiteko aukera baldin badauka... *chapeau!* Gero nik nire zauriak landu beharko ditut...

Harremanik ba al dago harrera familia eta familia biologikoen artean? Nola izaten da prozesu hori?

R. S.: Prozesu guztiak ez dira berdinak, baina hasieratik onena umearentzat izaten da bi familiak ezagutzea, harreraren joan baino lehen. Gure harrera familiek formakuntza daukate eta badakite hori izan behar dela onena, eta kasu batzuetan lortzen da. Beste kasu batzuetan kostata lortzen dugu eta beste batzuetan ez dugu lortzen igual gurasoak ez daudelako, edo kartzelan daude lako edo beste egoera bereziren bat dutelako. Baina benetan umeentzat jatorrizko familiaren baimen hori beste familiarengana hurbiltzeko garrantzitsua da, askoz errazagoa da dena.

Zaila da harrera familiak topatzea?

R. S.: Ume guztientzako familiak

Harrera familiak

945-77 30 52

Harrera zentroak: Haur asko daude harrera familia baten zain, euren guraso biologikoekin bizi ezin direlako harrera zentroetan daudenak. Adin guztietako haurrak eta nerabeak dira, batzuk bakarrik hartu behar dira, eta beste batzuk, aldiz, anai-arrebekin batera.

Harrera motak: Hainbat harrera mota daude; bi urteko iraupena duena, bi urtetik gorakoa eta, azkenik, sei bat hilabeteko iraupena duena, batez ere sei urtetik beherako haurrak hartzen dituenak.

Argibide gehiago: 945- 77 30 52
acogimiento@alava.net

topatzea bai. Asko kostatzen zaigu, adibidez, anai-arrebentzat, bi eta hiru anai-arrebentzako taldea baldin bada... Beste aukerarik ez badago banatu egiten ditugu, baina ahal badugu elkarrekin mantendu nahi ditugu. Horientzako familia bila ari gara orain, batez ere.

Nola helarazten duzue behar hori?

R.S.: Iragarri halako guneetan egiten dugu, eta ahoz ahokoaren bitartez ere heltzen zaizkigu familiak. Ordutik aurrera, inor animatzen bada telefono bat dugu (945- 77 30 52) deitzeko eta solasaldi bat egiten dugu zen den kontatzeko. Animatzen badira formakuntza saio bat egiten dute, eta gero balorazio bat pasa behar dute, hori bai; elkar ezagutu behar dugu eta zertan lagundu behar dugun jakin eta zer nolako umea eraman ahal dezakegun etxe bakoitzera.

Harrera familiaz ari garenean bikote bat bilatzen ari gara? Seme-alabekin, emakume bakarra izan daiteke...?

R.S.: Izan ahal da bikotea, pertsona bakarra, emakumea nahiz gizona, sexu berdineko bikotea, edozein adinekoa... Azken batean sentitu behar du ume bat zaintzeko gai dela, ahal duela halako egoera batean. Ondoren formakuntzan sakonduko du. Zertan sartzen zaren ondo-ondo pentsatu behar da, baina baldintza-

"Hasiera batean beharrezko da laguntza tekniko, egokitzapenean, galdera asko daukazulako"

A. BALENCIAGA HARRERA FAMILIA

"Sentitu behar du ume bat zaintzeko gai dela halako egoera batean; ez dago baldintza berezirik"

R. SANCHEZ HARRERA FAMILIAKO TEKNIKARIA

rik ez dago; ez dago familia berezi bat, denok zaindu ahal dugu beste bat.

Egokitzeko tarte bat izaten da?

R.S.: Ebaluazioaren ostean jakiten dugu hori, familia egokia den eta zer egingo lukeen ongien. Ainizeren kasuan, esaterako, beste bi ume zeuden, beraz, iritsi berria izan behar zen beste horiek baino txikiagoa, eta beraz, aukerak murrizten dira... Zenbat denborarako? Izan ahal da epe luzerako edo ez. Horregatik elkar ezagutu behar dugu, familiarentzat eta umearentzat zer den onena jakiteko. Aukeratutakoan hasten da beste prozesu bat.

Diru laguntzarik al dute familiek?

R.S.: Badago diru laguntza bat hila-betero, ezberdina umearen arabera, eta beharren arabera. Ezohiko gasturik baldin badute ere eskatu ahal dute laguntza berezi bat: ortodontzia, eskola partikularrak... Beste alde batetik laguntza tekniko ere bada: g: lantalde tekniko bat dago, hezitzaile batekin, psikologo batekin...

A.B.: Hori eskertzekoa da, eta beharrezkoa da gainera. Hasiera batean behar da, egokitzapen horretan galdera asko daukazulako: nola jokatu berarekin, nola kudeatu zure emozioak, nola landu beste semeekin... Eskertzekoa da teknikariak gertutasun hori bilatzea.

Zergatik hartu seme-alaba bat etxean?

A.B.: Uste dut hori bakoitzak bere buruari egin beharreko galdera dela, ni ez naiz inor sentitzen horri erantzun bat emateko. Nire esperientzia izan da ez dugula ez dakit nora jo behar izan laguntzeko edo mundu hobeago bat egiteko, bertan, herri edo hirian dauzkagula hainbat egoera oso latz. Haurrak daude tartean eta beraiei etxe goxo bat eman badiezaiokegu, aurrera.

Rosalen, nola egin behar da?

R.S.: 945- 77 30 52 telefonoan jarri daitezke harremanetan gurekin zalantza guztiak argitzeko. Mila esker. Behar zaituztegu.



Irribarrearen segada erakusketa

Artium

Vitoria-Gasteiz
www.artium.org

ERAKUSKETAK

PUNK. ARTE GARAIIKIDEAN UTZI DITUEN ARRASTOAK

2015 | 10 | 23 > 2016 | 01 | 31

IRIBARREAREN SEGADA.

Artium Bilduma 2015-2016

2015 | 10 | 02 > 2016 | 09 | 04

Alberto Lomas. Praxiaren bestelako ekintzak

> 10 | 01 | 2016

ImaginArtium. Haurrok, hurbil zaitezte artearen mundura

> 09 | 04 | 2016

JARDUERAK

ArtFutura

Talde-adimena. 2015eko jailadiaren ikus-entzunezkoen aurkezpena
6, 7, 8 | 11 | 2015

PUNKzinema

Punk mugimenduari buruzko dokumental-zikloa
14, 15, 21, 22 | 11 | 2015

ARTERAKO HITZAK: Mikel Ayerbe (euskaraz)

HITZALDIA:

Enrique Martínez Goikoetxea
Irribarrearen segada
25 | 11 | 2015

InTacto Jailadia

27, 28, 29 | 11 | 2015



#JADANIREA



Huawei P8 Lite

1000min + 1 GB

ETA WIFI DOAN KALEAN!

DENA, HILEAN

30'79€

BEZA BARN! SOIKER erdaintura

Kontratatu euskaltel.com-en | Dendetan | 1717an

euskaltel 

Estatutuko deialak: Bi hilabete baino gehiagoko antzinatasuna duten Euskaltelen bezeroentzako eskaintza.

Babesle teknologikoa:



EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLEA



Begetarianoan

Hiriko begetariano dekanon bazkaldu du gaur Estik, azken urteotako asteazkene-ro bezala. Karta polita dute gaurkoan ere, eta etxean erraz prestatzen ez diren plater zenbait eskaintzen dira. Menu erdian aukeratutako bi platerak goxo askoak iruditu zaizkio. Harritua dago alde horretatik; izan ere, jatetxera joaten urte batzuk daramatzala kontuan

"Jatetxean ez du beste ezer esan; ikusi eta entzun, ordea, asko egin du"

benetan. Zorionak!"

Jatetxean eman duen denboran ez du beste ezer esan. Ikusi eta entzun, ordea, asko egin du. Labean egindako arroza jaten ari dela, esaterako, Kataluniaren gaineko berbak ailegatu zaizkio belarrietara, inork ez dakiela oso ondo zer gertatuko den eta, beraz, interesgarri dagoela panorama. Era berean, unibertsitateari buruzko berriketa kritiko samarra aditu du tarteka, esanengatik-eta, irakasle batzuen ahotan. Bertan ez dauden hirugarren pertsona batzuen inguruko zenbait pasarte ere entzun ditu, eta pertsona horiek (bertan ez dauden) beste hirugarren batzuekin dituzten harreman xebeleen oihartzuna jaso.

Bidaia bakarrik egitera ohitua den pertsonaren antzera, begetarianora bakarrik joatea maite du Estik, bazkaltiarren arteko giro patxadatsua dastatzera: plazera sortzen dio genero humanoaren adierazpenak behatzeak mahai baten bueltan, ikus-entzunezko estimulu ozenik ez duen jate-txean.

hartuta, ez du gogoan gustatu ez zaion platerik sekula jan izana bertan. Hala jakinarazi dio hiru jabe-zerbitzarietako bati ordaintzean: "Marka da gero,

ITZIAR REKALDE
IPUIN KONTALARIA



Nire behatokia

Amama arabarra umezurtz geratu zen goiz eta bere ahizparekin batera Bizkaia aldera egin zuten osabak deituta. Handik gutxira, neskatxa gazte gazteak zirela, oihal denda bat ireki zuten herrian, maldan gora, zehazki portua goitik begiztatzeko behar zen altuera justu justuan. Aitite, herriko auzo bateko Txomane baserrian

"Hilen egunean, bideak erakutsi zizkidaten haiek bisitatu nituen"

Aititek hain zituen beteta urdin kolorez begiak, hain kresal usainez arima, itsas gizona egin zela erremediorik gabe.

Izara leunak, marinel jantzi sendoak eta heriotza ornitzeko hil-oihal puntilladunak josten zituen amamak. Itsasoak zeharkatzen zituzten garraio-ontziak gidatzen zituen aititek. Lurrera-tzean, bion artean landatutako dendaren gaineko geure etxera, amamaren aingurara itzultzen zenean, bere maletan sartzen ziren munduko portuetan jasotako arrangurak eta algarak. Amamak belarrekin enplastuak egiten zituen gorputzaren eritasuk sendatzeko eta aititek ipuinak kontatzen zizkigun arimak sendotzeko. Hilen egunean, nire jaioterrira joan nintzen, lehenago izan zirenak eta naizen hau izateko erroak bota eta bideak erakutsi zizkidaten haiek bisitatzen.

Kanposantua maldan gora dago, zehazki nire bizitza goitik begiztatzeko behar dudana altuera justuan.

jaio zen, zehazki itsasoa goitik begiztatzeko behar zen altuera justuan. Amamak leku hartan sustraiak botako zituela erabaki zuen.

DEBEKUAK ITSASEGIAREN ZINTA



GUTUNAK

SAREAN

Kalea bizi

JOSEAN BUENO SAEZ DE ALBENIZ

GASTEIZ

Bitxia da joera sozialean gertatzen diren aldaketen nondik norakoa. Izan ere, faktore ugari dute eragin zuzena gure portaeran. Azken boladan topikoa bihurtu da, adibidez, teknologia berriek eragindako aldaketa sozialak aipatzea.

Gasteizen, azken urteotan, aldaketa esanguratsua izan dugu gure instituzio sozial garrantzitsuenetako batean, hau da, poteoan: tabernetatik kanpora atera da. Duela urte batzuk askoz giro gutxiago zegoen kalean, eta poteoa batez ere taberna barruan egiten zen; normala, Siberia-Gasteizen bizi gara! Baina orain gero eta ohikoagoa da tabernetatik kanpora ere kuadrillarekin egotea, kalean biziz eta kalea bizituz. Eta ez da soilik udako kontua, joera honek udan bere gorenaren jotzen badu ere. Zergatik gertatu da aldaketa? Arrazoi asko daude. Batetik, barruan erretzeko debekua dugu: tabernari askok mahaitxoak, altuxeagoak ala baxuagoak, paratu zituzten atearen ondoan, erretzaileentzako babesleku. Tabakozaleak pioneroak izan dira kalearen birkonkista honetan. Bitxia da nola debeku batek eragin hain alai eta bizigarria izan dezakeen. Beste arrazoia kalera zabaldu diren

taberna askoren eboluzioa dugu, alde zaharrean era nabarmenean eta hiri osoan antzeman daitekeena. Udalak eginiko arautegiak, beladoreak onartuz, lagundu du prozesu honetan, baina seguruenik auzo askotan garatu den pintxopote tradizio berriak gehiago bultzatu du gasteiztar askorengan kalean solas egiteko gogoia, disfrutatze modua baita lagunekin, basoa eskuan, giro ederrean egotea. Arrazoiak edozein direlarik, argi dago poteoa ez dela gaur egun taberna batera sartu, egon eta atera beste taberna batera sartzeko. Kaleak ere badu bere lekua poteoaren jardueran, gero eta gehiago, neguan eta udan. Bada aldaketa esanguratsua gure ohituretan. Gazteagoa nintzenetik hona giroa galdu du hiriak astegunetan, gero eta europarragoak gara orduetako lehen astearte edo ostegun batean, gaueko hamarretan, alde zaharrean bazegoen giroan ibiltzerik. Gaur egun ez dago honelakorik, baina, trukean, ohitura berriak zabaldu zaizkigu, kaletarrago bihurtzen gaituztenak, Gasteiz hotz honen giroa berotzen dutenak.

Parte hartzeko:

Gehienez, 1.500 karaktere. Egilea, herria eta telefonoa zehaztu. ALEAK eskubidea du gutunak laburtzeko eta HIRINET.NET-ekin elkarbanatzeko. erredakzioa@alea.eus

#Kortxoenea

Kultura hiriburua izateko bi hilabetera, Kortxoenea gaztetxea bota dute aste honetan Donostian. *Olatu talka* baino, mezu olatuak eta talka ideologikoak nagusitu dira egunotan sare sozialetan. **I.ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ

**Eneko Goia** @enekogoia

Jabeak epaileari eskatu dio hustutze agindua; Udalak Kortxoeneako taldearekin hitz egin du eta hitz egiten jarraituko du konponbideak bilatu asmoz.

**Asier Lauzurika** @alauzurika

Uste dut kultura herritar eta parte hartzailea aldarrikatu duen Donostia 2016 proiektuak Kortxoenearekiko posizio argiagoa beharko lukeela izan.

**Donostia 2016** @DSS2016

#Donostia2016|ren balioei jarraiki espero dugu irtenbideak bilatzeko elkarrikeria irekiak emankorrak izatea.

**Andoni Egia** @AndoniEgia

Pertsona zehatz eta boluntate pertsonalak gaindituz, hiri-eredu=jendarte ereduaren arteko talkan kokatzen da auzi hau: Donostia 2016 vs Kortxoenea.

**Iban Zaldia** @IbanZ

Plusbalioa, balio kulturalak baino indartsuago beti. @kortxoenea ez eraitsi!

**Kattalin Miner** @MinerKattalin

"Hormak, bizikidetzat-balioen igorle" DSS2016? Zein? Gaur bota dituzuen Kortxoenea-koak? #kortxoeneabizirik

**Iker Tubia** @ikertb

Kapitalaren Kultura haien esku zela ospatzeko txanpainarekin topa egin nahi izan zuten. Lehenbizi, kortxoak kendu #KortxoeneaBizirik #DSS2016

**Haizea Solagurenbeaskoa** @aidegatxo

Bizilagunak gaztetxe kanpoan ta ikastolako ikasleak, ikasgelako lehiotik burua eta besoak aterata #KortxoeneaBizirik oihukatzen.... #auzoa



Asteartean aurkeztu zuten Gorka Urtaran alkateak eta Peio Lopez de Munain sozialistak udal-aurrekonturako akordioa. | GASTEIZKO UDALA

Gasteizko aurrekontuak, gerrikoa estututa

Santa Barbara plaza, Koroatze auzoa, BRT autobus sistema eta tranbia izango dira Udalaren lehentasunak 2016an

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

"Apala eta errealista". Hala xe laburbildu dute Gasteizko gobernu berriak eta PSEk datorren urterako adostu berri duten proiektu ekonomikoa. Javier Maroto alkate ohiak aurreko legegintzaldian eragindako 68 milioi euroko zuloari aurre egiteko, murrizketak aurreikusi dituzte hainbat sailetan.

Hirigintza proiektuetarako, esaterako, 2,5 milioi

euro gutxiago izango ditu hiriak (8 milioitik 5,5era); enplegua sustatzeko, 16,6 milioitik 6,9ra jaitsiko da aurrekontua, Europako Urban programa bukatuko delako, beste arrazoi batzuen artean; horiez gain, murrizketak egongo dira beste zenbait sailetan, tartean Ingurugiroa, Parte-hartzea, Segurtasuna, Eraikinen mantentze lanak, Funtzio publikoa, Informazioaren teknologiak eta Gardentasuna.

342

MILIOI EURO

lazko aurrekontua baino %2,3 baxuagoa izango da aurtengoa (zortzi milioi gutxiago).

Aldiz, pertsonal gastuetarako zazpi milioi euro

gehiago bideratuko dituzte, udal-langileei soldata %1 igo eta 2012tik zor zaien gabonetako paga ordaintzeko. Alkatetzaren aurrekontua ere handituko dute (5,8 milioitik 7,4ra), besteak beste Elkarbizitza eta Aniztasun zerbitzua abiatzeko.

Zenbakitan, 342 milioi euroko diru-poltsa izango du Gasteizek datorren urtean; alegia, iaz baino zortzi milioi gutxiago (%2ko jaitsiera). Kopuru horre-

"Murrizketak egin arren, herritarren bizi-kalitatearako sailetan eutsi diogu"

GORKA URTARAN
GASTEIZKO ALKATEA

tatik, 15 milioi aurtengo aurrekontu-gabeziari aurre egiteko bideratuko dituzte. Hartara, "partida asko doitu" behar izan dituzte, Gorka Urtaran alkateak berak aitortu duenez.

Antzokia eta Eratzen gunea Murrizketak egingo dituzten arren, alkateak eta PSEko bozeramaile Peio Lopez de Munainek ziurtatu dute "gasteiztarren bizi-kalitatearekin lotura" duten diru-sailetan "kopuruei eutsi" egin dietela. Hala, gizarteratzeko eta laneratzeko partidak handituko dituztela iragarri du Urtaranek, baita kaleko hezkuntzarako kontuak ere. Kulturen, sormena sustatzeko Eratzen zentro

berriari begirako proiektuak abiatuko dituzte, eta Gasteiz Antzokia martxan jartzeko diru-saila onartuko dute berriro, aurreko urteetako dirua ez baitzen gastatu; bestalde, garapenerako lankidetzarako %0,7a berrezarriko dute.

Corte Inglesen, pasabidea Lehentasunen artean, Santa Barbara plaza, Koroatze auzoa, tranbia eta BRT autobus sistema ezarri dituzte Urtaranek eta sozialistek. Santa Barbarari dagokionez, urte amaieran El Corte Ingles eta Abastos plaza lotuko dituen pasabidea jarriko dute; ondoren, parterreak kendu, estalki txikiak altxatu eta parkinga handituko dute ere. Eraberritze hori jeltzaleen *Bost enparantza* proiektuaren baitan kokatzen da, jatorriz Andra Mari Zuriaren plaza, Plaza Berria, Foru enparantza, Jesus Maria de Leizaola eta Santa Barbara plaza bere baitan hartzen dituenak.



ALEA

Lan berririk ez Gasteiz hiribidean

Udalaren egoera ekonomiko txarra dela medio eta "beste lehentasun batzuk" dituela-eta, udal-gobernuak bertan behera utzi du Gasteiz hiribideko zaharberritzea Honduras eta Gaztelako Atearaino eramateko proiektua.

Koroatzeri dagokionez, 29 milioi euro bideratuko dituzte auzora, horietatik 11 Europatik jasota. Bertan, 750 etxetako energia-eraginkortasuna hobetuko dute, eta mugikortasuna errazteko neurriak hartuko dituzte.

Babesa behar dute

Udal gobernuaren bost zinegotziak eta PSEren laurak ez dira nahikoak Gasteizko aurrekontua onartzeko, udalbatza osatzen duten 27 zinegotzien erdiak gehi batek babestu behar dutelako proiektu ekonomikoa. Hori dela eta, EH Bildu edo PP-ren babesa behar izango dute, Hemen Gaude eta Irabaziren zinegotzi kopurua ez litzatekeelako nahikoa izango. Laster abiatuko da emendakinak egiteko epea eta, negoziazioek fruituak emanez gero, urte amaieran onartuko dituzte behin-betiko aurrekontuak; akordiorik ezean, aurtengoak luzatu behar izango dituzte.

MUGIKORTASUNA

Tranbia Salburura iritsiko da, ez ordea Zabalganara

BRT autobusak hiria inguratuko du, 14 auzotatik igaroz

I. ESTARRONA

GASTEIZ

Argitu dira azken asteotan Gasteizko tranbiaren inguruan izandako gorabeherak: azkenean, bi linea berri egiteko konpromisoa hartu du Udalak, Angulematik abiatuta: bata, Unibertsitatearaino, Adurtza eta San Cristobaleko auzokideei zerbitzua emateko; bestea, Salburuko gizarte-etxeraino.

Urria hasieran Iñigo Urkullu lehendakariarekin egindako bilera eta gero, tranbia Salbururaino luza-

tu beharrean auzoa bus azkarrekin lotzeko aukera jarri zuen mahai gainean Gorka Urtaran alkateak, hauteskunde kanpainan hitz emandakoa kolokan jarritz; hain zuzen, auzokideek eurek erabakiko zutela adierazi zuen orduan. Hiru aste geroago, auzokideak bilera ireki batera deitu ondoren, eta PSErekin udalerako aurrekontu proposamena adostu eta gero, metro arina ekialderaino eramango duela hitz eman du alkateak. Hain zuzen, 2017ko




Adurtza, San Cristobal eta Salburura iritsiko da tranbia. | ALEA

urte hasieran abiatuko dituzte lanak.

Zabalganarako, aldiz, "bestelako mugikortasun aukerak" aztertuko dituzte eta, proiektu zehatzago baten faltan, kexu da bertako Zabalgana Batuz auzo elkarteak. Bestalde, hiria inguratzeko *bus rapid tran-*

sit (BRT) sistema ezarriko dute, 14 auzotatik igaroko dena, tartean Mendizorrotza, Adurtza, Santa Lucia, Arana, Zaramaga, Lakua, Txagorritxu, San Martin eta Ariznabarra, gaur egungo autobus zerbitzuko L2 linearen ibilbidearen antzekoa eginez.



Amurrioko Batzokiko txistu klaseetan parte hartzen zuen udan Galindez jeltzaleak. | AIARALDEA

Jesus de Galindez: Gerra hotzaren lainopean desagertu zen arabarra

Estatu Batuetarako espioi lanak egin zituen jeltzale amurriarra omendu berri du EAJ-k

TXABI ALVARADO BAÑARES

AMURRIO

Pasa den urriaren 12an 100 urte bete ziren Jesus de Galindez jaio zela. Idazle, politikari eta ustezko espioia izan zen, baina horren guztiaren gainetik gauza batek bilakatu zuen ospetsu: bere desagerpen misterioitsuak.

Amurrio eta Madril artean hazi zen Galindez. 17 urterekin afiliatu zen EAJra, eta alderdi jeltzalearen gaztedietan militatu zuen, Zuzenbide Politikoa ikasten zegoela. Handik hiru urtera hasi zen Gerra Zibila, eta Justizia Ministro Manuel de Irujoren laguntzaile bilakatu zen, bi bandoetako atxilotuen trukatzeetan lan eginez.

Bando errepublikanoak

porrot egin zuenean, Frantziara egin zuen ihes, baina ez bertan geratzeko. 1939an Dominikar Errepublikara joan zen. Bertako Eskola Diplomatikoan aritu zen irakasle, eta Kanpo Gaietarako Ministerioan ere lan egin zuen. Herrialde horretan Leonidas Trujillo zegoen boterean, eta diktadore horren semeetako baten irakasle izatera iritsi zen Galindez: Ramfis Trujillorena. Hainbat ikerlariren arabera, Ramfisek zeresan handia izan zuen, handik urte batzuetara, Galindezen desagerpenean.

Espioiaren misterioa

1946. urtean greban zeuden azukre ekoizleekin akordio batera iritsi egin zen,

Gutxiengo Soldaten Batzordeko idazkari lanetan zebilela. Handik gutxira, Trujilloren gobernuarekin zituen desadostasunak medio, New Yorkera joan

Hipotesi hedatuena da Trujillo diktadorearen enkarguz hil zutela

zen, eta han bizi izan zituen bere azken urteak, bere bizitzako misterioitsuak.

Bizitza publiko nabaria egiten zuen garai horretan. Columbiako Unibertsitatean klaseak emanez eta Idazle eta poeta iberoamerikarren zirkuluan parte hartuz. Eusko Jaurilaritza-

ren deserriko gobernuen ere parte hartzen jarraitu zuen, Agirre lehendakariarekin. Baina amurriarrak bazuen beste alderdi ezezagunago bat: Estatu Batuekin harremanetan zegoen espioiarena.

Informazio eta teoria asko daude Galindezek zerbitzu sekretuekin izandako harremanaren inguruan. Dominikar Errepublikan hasi omen zen harreman hori, FBIak gaiaren inguruan desklasifikatutako dokumentuen arabera. Bertan zeuden nazien eta Espainiako komunisten inguruan informatzea zen bere eginkizuna.

Honako mezu hau bidali zion Arthur P. Dugan agenteak garai hartan FBIko buruzagia zen John Edgar Hooverri: “Galindezek zintzotasunez esan digu nahiago duela nazien inguruko informazioa eman Espainiako komunisten inguruko ekintzen berri ematea baino, hala ere komunisten inguruko informazio baliotsua eman ahal izan digu beti”. DR-10 kodea egokitu zitzaion amurriarrari. “Rojas agentea” izendatua izatera pasa zen gero.

Espioi moduan egin zuen lana bezain misterio-tsua da bere desagerpena. 1956ko martxoaren 12an izan zen ikusia azkenekoz, metro geltoki batean. Honako idatzi zuen testamentuan: “Nire hilotza Amurriora eramatea eskatu nahi dut, nire aitak Larra-ben duen lursailera”. Baina bere gorpua ez zen inoiz agertu. Hipotesi asko plazaratu dira Galindezen desagertzearen inguruan, baina honakoa da hedatuena: Trujillo diktadorearen enkarguz bahitu eta Dominikar Errepublikara eramanez zutela, bertan torturatu eta erailtzeko.

Pasa den asteburuan omenaldia egin zion EAJ-k Aresketamendin.

Euskal Herrian zuhaitz motz gehien duen parke naturala da Gorbeiakoa

Egur gehiago lortzeko enborrak lepatzen hasi ziren herritarrek duela bost mende, basoetan azterna berezia utziz

MIKEL CARRASCO APOITA*

*Parke naturaleko zaintza zerbitzuko kidea - MURGIA

Gorbeiaiko baliabide naturalak antzinatik ustiatu dira; tartean, zuhaitzen ustiapena. Egurra lortzeko moztu izan dira zuhaitzak eta egur horri askotariko erabilerak eman zaizkio historian: ikatza egin, etxeak berotu, karea lortu, itsasontziak eraiki...

XVI. mendera arte ohikoena zuhaitzak oinetik moztea zen, baina horrek arazoa zekarren: hain zuzen ere, mendian zeuden abere andanak zuhaitz jaioberriak jaten zituztela eta horren eraginez gero eta zuhaitz gutxiago zeudela. Hori ikusita, zuhaitzak mozten zirenean zuhaitz berriak landatzera legez behartzeaz gain, egurra lortzeko beste modu bat ere proposatzen hasi zen: zuhaitzak lepatzearena.

20 urteko zuhaitzetan

Teknika hori erabiliz 20 urte inguruko zuhaitzari enborra 2 edo 2,5 metroko altueran mozten zitzaion; horrela, datozen urteetan, adar ugari ateratzen zituen arbolak. Eta 10 edo 20 urteren buruan zuhaitz horiei adar batzuk mozten zitzaizkien. Modu horretan, egurra lortzearekin batera zuhaitza bizirik mantentzea lortzen zen eta abereek zuhaitz horien azpian bazka egin zezaketen. Zuhaitz mota hauek garapen jasangarriaren eredu argia dira, abeltzaintza, basogintza eta naturaren zaintza uztartzen baita baso hauek.

Gorbeiaiko mendial-



Ikusgarria da Siskinako magalean dagoen pagoa. | MIKEL CARRASCO

dean nonahi topa ditzakegu zuhaitz lepatuak edo zuhaitz motzak; izan ere Gorbeia da Euskal herrian zuhaitz motz gehien duen parke Naturala. Bertan dagoen animalia eta landare aniztasunaren arrazoietakoa bat zuhaitz mota hauen presentzia da; izan ere, pago, haritz edo ametz zahar hauek animalientzat bizitoki diren zulo ugari dituzte eta.

Bestalde, zuhaitz zaharrak direnez adar batzuk usteltzen ari zaizkie horietako batzuei eta bertan

intsektu, liken edo goroldio ugari topa daitezke egurra deskonposatzen. Hortaz, Gorbeian arkanbelea edo rosalia alpina bezala ezauna den intsektuak topatzea zuhaitz zaharrei sorzaie. Lepahoria ere Euskadi mailan Gorbeia du bizitokirik egokiena, zuhaitz zaharren zulo horiek bizitokitza baititu. Muxarrak, katajinetak, okilak, saguzarrak eta beste hamaika animalia etengabe bilatzen dute zuhaitz lepatuak bertan aurkitzen baitute segurtasuna ema-

ten dien bizitokiak.

Horrez gain, garai bateko usadioen testigu izan diren aldetik baliabide kulturaltzat har daitezke, eta aldi berean, arbola zahar batek dituen abantailak ditu naturaren kontserbazioan.

Mairuelegorretan berriak

Hala ere, zuhaitz hauek gero eta gutxiago ikusiko dira inguruko basoetan, izan ere, zaharrak direnez eta negu partean bereziki adarretan pisu gehiegi hartzen dutenez, urtero bat edo beste erortzen da. Hori dela eta, Mairuelegorretako kobazulotik gertu dauden pare bat zonaldetan batzuk inausi dira zuhaitz motz berriak sortuz.

Esan bezala, horiekin osatutako baso ugari daude Gorbeian; bat aipatzearen, Murua herritik Gorbeia doan bidean bertan topa daitezke 200 urtetik gora dituzten haritz motzak, edo, Mairuelegorretako kobazulorako bidean dagoena ere bisita daiteke. Horietaz gain, Gorbeian bada pago motzez osatutako baso txikia eta oso ezauna. Otzarreta izeneko ingurunean dago kokatuta eta bertara iristeko Barazarreko mendatetik Saldropoko urmaelera doan bidean dagoen bidegurutzean ezkerretara egin behar dute bisitariek.

Zuhaitz motz handi bat ere badago Gorbeian; hain justu, Siskina mendiaren magalean dagoen 7,7 metroko perimetroa duen pagoa da hori.



Familia mota ezberdinen ordezkariekin mahai-ingurua egingo dute Zabalarten, larunbatean . | G. GARAIALDE

Familia eredu berriei buruz arituko dira Agurainen

Ama guraso bakarrez osatutako familia izango dute aztergai, besteak beste, Zabalarten

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
AGURAIN

Hamar urte baino gehiago dira Lautadan berdintasuna ardatz dituzten jardunaldiak antolatzen dituztela, eskualdeko udalerrri ezberdin batean urtero. Iaz, esaterako, gazteen arteko harremanak izan zituzten hizketagai Dulantzín egindakoetan. Eta aurten, berriz, familia eredu berriei helduko diete Agurainen.

Seme-alabak dituzten bikote homosexualak, ama guraso bakarrez osatutako familiak, umetokia alokatzen dutenak. Askotariko familia eredu berriak daude gaur egun, eta horiek ikusarazi nahi dituzte jardunaldi hauekin, Lautadako Kuadrillako Berdintasun teknikari Jaione Almirantek azaldu moduan: "Uste dugu ez direla ikusgai egiten eredu hauek oraindik, eta hori izan da

jardunaldi hauek antolatzeko arrazoietako bat".

Herri txikietan eredu horiek ikusaraztea zailagoa izan ohi da, eta hala aipatu du Almirantek: "Badirudi oraindik tradizioaren inguruan mugitzen direla herri hauek eta aldaketa hauek ez dira asko sumatzen". Hainbat herritarrek eredu horiek ezagutzeko gogoia dutela dio eta jardunaldiotan informazio baliagarria jasoko dutela.

Mahai-ingurua

Aguraingo musika eskolako musikariekin emango diote hasiera larunbatean, 17:00etan, kale nagusitik igaroko den kalejira batekin. Ekitaldiaren aurkezpenaren ostean, Zabalarte etxean, 17:30ean, hainbat dokumental eta pelikularen zatiekin osatutako sarrera bideoa ikusiko dute.

Eta, jarraian, mahai-ingurua izango da bi familia mota ezberdinen ordezkariekin. Nazaret Rosado ama guraso bakarra duten familietako elkarteko ordezkaria izango da hizlari, alde batetik, bikoterik gabe ama izateko erabakia hartu dutenen izenean. Eta Besarka elkarteko Julia Larrinbe izango da, beste alde batetik, harre-ra eta adopzioaren inguruan lanean dabilen elkar-tearen izenean. "Sentsibilizazioa da helburu nagusia. Beste familia batzuk badaudela eta haue-tako askok diskriminazioa jasaten dutela ezagutu behar dugu", azpimarratu du Almirantek.

Jalgi emakume taldearen errezitaldiarekin, 19:30ean, eta Burguko Argia emakumeen elkar-teak antolatutako pintxo-potearrekin amaituko dituzte jardunaldiak.

Antzerki talde amateurren jaialdia hasiko da gaur, Dulantzín

A. AMENABAR

DULANTZÍ

Antzerki Amateur Jaialdiari ostiralean, hilaren 6an, emango diote hasiera, eta azaroaren 20ra bitartean zortzi lan aurkeztuko dituzte Dulantzíko Txema Blasco antzokian. Euskarazko lanik ez da izango.

Cacerese (Espainia) Argea taldearen *Troyanas* lanarekin hasi eta, besteak beste, Aimara taldearen *Yo soy la revolución* edo La Petiestable taldearen *Satvages* lanak ikusi ahal izango dira. Hilaren 28an amaiera gala egingo dute.

JARDUNALDIAK

Desobedientzia izango dute solasgai Ozetako Garaion gunean

A. AMENABAR

OZETA

Desobedientzia mahai gainean izango dute larunbatean, hilaren 7an, Ozetako Garaion Sorgingunean. Lurralde Askea ekinaldiaren lehendabiziko bilera egingo dute, 10:00etatik aurrera, *Izan desobediente* goiburu.

Elkar ezagutzeko tartearen ostean, desobedientziaren inguruko hausnarketak egingo dituzte herri mugimenduko hamar ordezkariak. Ondoren, lantaldeka egingo dute eztabaida eta bilera irekia egingo dute. Auzolanean ere arituko dira, arratsaldean.

Sahararen aldeko ekitaldia egin eta Bakelekua antolatzen hasiko dira

Kuartangoko herritarrek Sahararekiko elkartasuna indartuko dute bihar, hilaren 7an; 11:00etatik aurrera izango dira ekitaldiak



Mendebaldeko Saharako haurrei ongietorria egin zieten joan den udan Gasteizko Udalean. | QUINTAS

ESTITXU UGARTE @estitxuugarte

KUARTANGO

Kuartangoren eta Mendebaldeko Sahararen arteko harremana estutzen hasi da. Uda honetan lehenbiziko aldiz Bakeleku ize-neko udalekua antolatu zuten Zuhatsu Kuartangon eta hogeitau urte saharar hartu zituzten herrian, uztailan eta abuztuan. Biher batzarra antolatu dute udaletxean hurrengo urteko udalekua prestatzeko eta bide batez kanpamentuetan jasan dituzten euriteen ondorioz udan egon ziren umeen familiak zer egoeratan dauden azaltzeko eta bizi duten egoera arintzeko ekimenak aurkezteko.

Gainera ekitaldiak egingo dituzte goizean

zehir Tindoufeko saharar errefuxiatuen kanpamentura elkartasuna helarazteko asmoz. Hala, 11:00etatik aurrera Laguntza Humanitarioaren Karabana Aljeriako kanpamentura aurki eramango dituen hiru ibilgailuak aurkeztuko dituzte eta herriko haurrek euren eskuen azternak utziko dituzte kanpamentuetara eramango den ibilgailu horietako batean.

Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe da ekimenaren antolatzailea. Gasteizko eta Bilboko Euskotreneko langileak biltzen ditu taldeak eta azken urteetan Sahararekin lan egiten ari da burubelari, materiala bildu

eta kanpamentuetara bidaltzeko eta Mendebaldeko Sahararen egoeraren inguruan sentsibilizatzeko.

Arabian saiakera

2012. urtetik ume sahararrentzat udalekuak antolatzen ditu Urduñan, urtero urtero. Bakeleku ize-neko ekimen hau Euskal Herri osora zabaltzeko nahi zuten eta aurtengoa Arabian egin dute saiakera lehenbizikoz aldiz. Arrakasta handia izan da.

Kuartangoko Udalak eta bailarako herritarrak zeharo inplikatu dira udalekuaren antolaketa eta Aljeriako kanpamentuetan bizi diren haurrei aukera eman die hildabete beronetan gutxienez basamortu

tua utzi eta giro osasuntsuagoan oporrak igarotzeko.

Dozenaka batzorde antolatu zituzten Kuartangon umeentzat arropa eta janaria lortzeko, medikuaren etxe zaharra eta baratza handia egokitu zuten sahararrak jasotzeko eta txangoak zein era guztietako tailerrak antolatu zituzten haiekin batera. Halaber oinarritzko osasun arreta eta elikadura orekatuagoa eskaini zieten.

Arabako eta Bizkaiko Bakelekuak Gipuzkoara eta Nafarroara hedatzeko urratsa egingo du aurtengoa Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe taldeak.



Postuz eta jendez beteko dira igandean Santikurutze Kanpezuko kaleak. | AITOR ARENAZA

San Martin azoka egingo dute igandean, Kanpezun

Aurten, lehen aldiz, inguruko produktuekin egindako pintxoak dastatuko dituzte bisitariek

MIRIAN BITERI

SANTIKURUTZE KANPEZU

Urteroko hitzordua dute asteburuan Santikurutze Kanpezun: XXVI. San Martin azoka. Larunbatean hasiko dira ekintzak, Kanpezuko pilota eskolako pilotariak eskainiko duten jaialdiarekin. Pilotalekuan

jokatuko dituzte norgehiagokak, 19:00etan.

Igandea izango da egun potoloa. Betiko moduan, hainbat gunetan egongo da banatuta azoka; bate-tik, inguruko abereak ikusteko aukera izango da, hala nola, behiak, zal-diak, ardiak edo txerriak.

Pilotalekuan, berriz, eh-ziri eta artisau erakusketak jarriko dituzte; 25 bat artisauen produktuak egongo dira ikusgai. Bette-tik, plazako arkupetan, Mendialdeako produktuak saltzen dituzten postuak jarriko dituzte; eta herri-ko gainerako kaleetan,

Euskal Herriko beste txo-koetakoak.

Gastronomia lehiaketa

Azokarekin batera, gastronomia txapelketa egingo dute. Itxita dago dagoe-neko izen-ematea; parte-hartzaileek eguerdia baino lehen eraman behar-ko dituzte plater librea eta postrea pilotalekura. Ez da gastronomiarekin lotutako ekimen bakarra, izan ere, aurten, lehen aldiz, Mendialdeako pro-duk-tuekin egindako pin-txoen dastatzea dago. Euro baten truke, moxalez egin-dako haragi-bolak, boilu-rra duten odolkiak edo gazta eztiarekin probatu ahal izango da.

Bestalde, eguerdian, harrapakarien hegaldien erakustaldia dago futbol zelaian; eta goiz osoan, umeentzako puzgarriak ikastolako jolastokian.

Azken bi urteotako ohi-turari jarraituz, gainera, bertso azoka izango da; saio ibiltaria egingo dute Asier Solozabal eta Asier Otamendi bertsolariek herriko kaleetatik. Eta ber-tso-eskolako taldeek ere emanalditxo prestatu dute.

KIROLA

KIROLGUNE BERRIA DU MAEZTUK

Aurretik martxan zegoen arren, larunbatean inauguratu zuten Maeztuko Nordic Walking gunea. Udaletxe parean aurkezpena egin ostean, hastapen ikastaroa egin zuten 35 lagun inguruk ibilbide berdetik; tartean, Maeztuko alkateak eta Mendialdeako Kuadrillako presidenteak.



Ingurukoak ez ezik, Euskal Herri osotik etorritako lagunak ere izan ziren inaugurazioan. | BEATRIZ FERNANDEZ

Martxan dira Argantzungo eta Trebiñuko ludotekak

Konderrikoa ibiltaria da; aste bukaera bakoitzean lau herri bisitatzen dituzte begiraleek

MIRIAN BITERI

TREBIÑU

Asteburueta arratsaldeak epelean egoteko aukera dute aurrerantzean Argantzungo eta Trebiñuko konderriko etxeko txikiak. Martxan daude dagoeneko bi herrietako ludotekak. Argantzun, igandeetan dago zabalik, 18:00etatik 21:00etara, udal txetan; eta Trebiñuko konderrikoa, larunbatean eta igandean, 17:00etatik 19:00etara.

Bigarren horrek, baina, berezitasun bat du. Hain justu ere, ibiltaria dela eta



Askotariko tailerrak dituzte; irudian, Argantzungo haurrak. | ALEA

herriz herri joaten dela; egun bakoitzean udalerriko bi herri bisitatzen dituzte begiraleek. Denera, zortzi herri eta lau begira dira

konderrian. Asteburu honetan, esaterako, larunbatean Sasetan eta Añastron egon da; eta igandean, Albainan eta Armentian. Kristina

Oraak urteak daramatza bertako ludotekan begirale moduan. Adin tarte zabal da han, bi urteko ume txoetatik 14 urte bitarteko neska-mutilak joaten direla azaldu du, eta hortaz, adinaren arabera tailer ezberdinak antolatzen dituztela. Tailerrak eta baita jolasak ere.

Bestalde, adierazi du jolasgunea baino gehiago direla ludotekak. Horren harira, Barrendegiko Euskara teknikari Beñat Goitiak nabarmendu du "elementu garrantzitsuak" direla asteburuetan ere euskararekin harremana mantentzeko: "Doazen haur gehienak euskaldunak izaten dira eta horrek euskaraz egiteko aukera eskaintzen du. Beraz, ludoteka bezalako erreferente bat izatea garrantzitsua da aisialdirako euskararen presentzian".

ESKATU AZAROAREN 8A BAINO LEHEN


AIXKIRIA AEK
ALKARTETXEA
ARMENTIA IKASTOLA

ARANA AEK
TOKI EDER ESKOLA
ZADORRA AEK

HARTU ETA EMAN

Hartu saskia 50€ren truke

Eman euskalgintzari %25



Ander Diez Ayesa Guardiara hurbildu zen larunbatean bertako gazteluaren inguruan egin duen proiektua aurkezteko. | ALEA

Gaztelua, ahanzturatik argitara

Ander Diez Ayesa donostiarrak arkitektura gradu amaierako proiektua egin du Guardiako gazteluaren inguruan eta pasa den larunbatean aurkeztu zuen Guardian; gaztelua ezagutarazteko museoa eta elizaren inguruko ibilbidea egitea proposatu du

AITOR ALVAREZ

GUARDIA

Ander Diez Ayesa Guardiako ez bada ere, ondo ezagutzen du herria eta askotan entzun du bertan gaztelu bat izan zela. Arkitektura gradu amaierako proiektua egiteko ordua heldu zitzaionean, beraz, horren inguruan informazioa aztertzen hasi eta lursail bat aurkitu zuen, Guardiako muinoaren iparraldean, XIX. mendeko gaztelua kokatzen zena.

Horri helduta, orain dela urtebete hasitako proiektua aurkeztu zuen larunbatean Diez Ayesak; ikerketaren emaitzak eta proposamenak ezagutarazi zituen.

Gaztelua eraiki zen eremu horretan, gaur egun, eskola bat dago. Donostiarrak ez du uste erabilera egokiena denik, "lekuaren garrantzi historikoa" kontuan hartzen baldin bada.

"Omenaldiaren dorrea eskualde mailan erreferente elementua zen"

ANDER DIEZ AYESA
PROIEKTUAREN ARDURADUNA

Eraikina eta eraikinaren aztarnak "utzikeria eta zaharkituriko egoerabatean" daudela dio Diez

Ayesak. Hori kontuan izanda, proiektuaren helburu nagusia da gaztelua eta omenaldiaren dorrea – eraikinaren elementu garrantzitsuenak – berpiztu eta gogoraraztea.

30 metroko altuera

Dokumentu grafiko ugari ez badaude ere, aurkitutako hainbat planori esker, gazteluaren kokapen zehatza eta haren elementu nagusiak zeintzuk ziren argitzea lortu du: "Hipotesi bat egiten dut dorrea oinplanoan kokatuta; antzinako omenaldiaren dorre horren zimenduak eta gazteluaren sarbide zen hobia-ren horma errekupeatzea da asmoa". Aztertutako

XIX.

MENDEKO GAZTELUA


Guardiako gaztelua karlistadetan botatzeko agindua eman zuten. Geroago, armeria bat izan zen eta egun eskola dago bertan.

informazioarekin ondorioztatu duenaren arabera, dorreak 225 metro koadroko oina zuen eta 25 eta 30 metro arteko altuera, eskualde mailan "errefe-

rentzia elementua" zena. Diez Ayesak Guardiako Santa Maria eliza eta Abat dorrearekin alderatu du gaztelua: "Bi monumentu hauek historikoki garrantzia gutxiagokoak izan arren, gaur egunera arte mantendu dira".

Proiektuaren arabera, gaztelua Guardiari sorrera eman zion elementua izan zen: "Guardia Erdi Aroko hiribildua da, Nafarroako erreinua defendatzeko erai-ki zena eta lehenbizi gotorleku hori izan zen; leku estrategikoan, gainera, Guardiako iparraldeko mui-noaren puntu garaienean". Azken horren inguruan zera ohartarazi du arkitek-tura ikasleak: "Gaztelua eraikitzean kokapen pare-gabea aukeratzen da; esko-la hor izanik, ez herritarrek ezta bisitariak ere, ez dute bertara sartzeko aukerarik".

Egitasmoan, Diez Aye-sak Guardiako gazteluaren inguruko museoa sortzea proposatu du. "Helburua da Karlistadekin botatzea agindu zen gaztelu horren ideia Guardiari itzultzea eta, horrekin batera, erai-kin hori berpiztu eta gai-nerako hiribilduarekin elkartzea; daukan garran-tziarengatik, batez ere".



Guardiako gazteluaren inguruan kontserbatzen diren dokumentu grafiko gutxienetako bat. | ALEA

Hark aurkeztutakoa "proiektu utopikoa" dela uste badu ere, bertako zati batzuk "aplikagarriak" direla uste du. Horren hari-ra, dio egungo eskolaren jolastokia dena, geruzaz betetzen joan dela eta albo-ko bi plazak baino kota altuagoa hartu duela. Proiektuan proposatzen du maila hori jaistea, bi espazioen kotak berdintzeko eta elizaren inguru-ko ibilbide perimetrala sortu ahal izateko.

Ibilbidea

Bi mailako plaza bat sortu du Diez Ayesak proiektuan, elizaren inguruko ibilbide hori ahalbidetzeko. "Horre-

"Gazteluak Erdi Aroko Guardia hiribilduari sorrera eman zion"

"Jolastokirako proposatutakoa planteagarria da, gaur egun"

ANDER DIEZ AYESA
PROIEKTUAREN ARDURADUNA

lako proiektu txikiagoak, adibidez, planteagarriak dira eta, horrez gain, indus-keta bat egin beharko litza-

teke, aurkikuntzak ekar ditzakeenak". Donostia-rraren esanetan, "oso inter-esgarria" izango litzateke ingurune horretan indus-keta egitea: "Guardiako lur azpian aztarna asko daudelako, baita erromatarren garaikoak ere".

Etorkizunaren ingu-ruan hitz egitean, indus-ketak egitearekin batera, gazteluari daukan garran-tzia itzultzearen aldekoa da. Haren arabera, den-borarekin, interesgarria izango litzateke eskola institutuaren aldera mugi-tzea eta gazteluaren gunea-ri "izaera publikoagoa" ematea, bisitatu eta eza-gutu ahal izateko.



Eskolako jolastokia alboko bi plazekin berdintzea proposatu du Diez Ayesak, elizaren inguruko ibilbidea sortzeko. | ANDER DIEZ AYESA

Istorio bete historia

Gasteizko Gaztetxeak bere ibilbidea jasotzen duen dokumentala aurkeztuko du Euskal Herrian eta Europako zenbait hiriburutan, "urte hauetan zehar sentitu, pentsatu eta egindako guztiari izen-abizenak jartzeko". **ITSASO ESTARRONA GASTEIZ**

Besteak bezalako Prudentzio egun bat izan zitekeen 1988koa ere, perretxiko eta barraskiloak hizpide nagusi diren horietako beste bat, Armeniako zelaietatik bost kilometrora hiriko historian bere lerroa idazten ari den proiektuaren atea ireki izan ez balute: Gasteizko Gaztetxearena, hain zuzen, gotzaindegi zaharreko eraikin hutsean. Ordutik, larruzko txupen belaunalditik gaur egungo sare sozialen gizaldira, Gerra Hotzaren amaieratik Euskal Herriko bake prozesuaren hasierara, hogeita zazpi urtez bizirik mantendu dute ehunka gazte alde zaharreko etxe autogestionatu eta asanblearioa. Ibilbide horren berri emateko, dokumentala egin eta emanaldi-bira antolatu dute, prentsaurrekoan adierazi bezala, "urte hauetan zehar sentitu, pentsatu eta egindako guztiari izen-abizenak jartzeko".

Probatu ez duenak ez daki zer den hau izenburupean, hiru belaunaldiren fikziozko istorioak elkar gurutzatzen dituen hariarekin tartekatuta Gaztetxearen inguruko hainbat testigantza jasotzen ditu lan berriak; tartean, etxea okupatu zuten aitzindarienak, gaur egungo gazte asanbladako kideenak, gurasoenak, auzokideenak eta agertokitik pasa diren musikari eta antzerkilarienak. Soinu bandaren partitura, *Bagarela*

kanta, Gasteiz Big Band-eko zuzendari Jimmy Bidaurretak konposatu du, eta talde horrek eta Dj Lorok jarri diote musika. Gaztetxeak idatzitako hitzei zortzi abeslarik jarri diote ahotsa: Evaristok, S.A. taldeko Juanek, Sorkunek, Betagarriko Iñaki Ortiz de Villalbak, Indarrapeko El Puto Titok eta Fat Fishek, eta Kodigo Norteko Markesek eta Sokek.

Gasteizen, abenduaren 4an

Gasteizen iaz eta aurten bi aurrestreinaldi eskaini badituzte ere, aste honetan hastekoa zen dokumentalaren emanaldi egutegia Donostiako Kortxoenea gaztetxean, asteartean eraitsi izan ez balute. Gaztetxe Bira izenburupean, Euskal Herriko beste lau bazterretan antolatu dute proiektzioa datozen asteetan: Bilboko Zazpi Katu gaztetxean, Erandioko Kalezulo gaztetxean, Altsasuko gaztetxean eta Iruñako Kalekalde gazte lokalean. Gasteizen, abenduaren 4an jarriko dute, 19:30ean Arte eta Lanbide eskolan. Euskal Herritik kanpo ere erakutsiko dute lan berria; oraingoz, Madrilén, Bartzelonan eta Berlinen lotuko dituzte emanaldiak. Eta, edonon egonda ere, internet bidez ikusteko aukera eskainiko dute abenduaren 15etik aurrera, *Naiz.eus* atarian.

Internet bidez ikusteko aukera eskainiko dute abenduaren 15etik aurrera, Naiz.eus atariaren bidez

Belaunaldiz belaunaldi, lekukoa

Gaztetxea bizirik mantentzeko, belaunaldiz belaunaldi testigua pasatzeko lana "asko zaindu" dute. Hala adierazi du duela hogeitazazpi urte gazte asanbladan aritutako Ekaitz Lotina beterranoak, Hirinet FM irratsaioak ALEAren elkarlanean egindako saioan. "Eraikin horren atzean istorio oso potentea dago, eta belaunal-

Euskararen astea Gaztetxean

AZAROAREN 26A, OSTEGUNA

20:00 Batukada, Hala Bedi tabernatik Gaztetxera.

21:30 Bertso saioa. Amets Arzallus, Irati Anda, Sustrai Colina, Oihana Beltran, Manex Agirre eta Aiala Martin.

24:00 Tarantistadak Djs.

AZAROAREN 27A, OSTIRALA

21:00 Eh Sukarra, Hobetu beharra.

AZAROAREN 28A, LARUNBATA

12:00 Triki-poteo euskalduna, San Bizente aldapako 'faroloitik' hasita.

19:30 Enkore, Txapelpunk, Emon eta Dj Festa (GazteHitz jaialdia).

AZAROAREN 29A, IGANDEA

19:00 '80 egunean' pelikula.

ABENDUAREN 1A, ASTEARTEA

19:00 Mintzalagun world-coffee-a.

ABENDUAREN 2A, ASTEAZKENA

19:00 Kasernarat, kontzertu akustikoa.

ABENDUAREN 3A

Euskararen eguna



**Gotzaindegi
zaharra okupatu
zuteneko unea.**

GASTEIZ

di aldaketa beti zaindu dugun zerbait da; zorionez, beti agertzen dira gazte berriak eta fundamamentuzkoak".

Belaunaldi berrienekoa da Kepa Perez, 21 urteko gaztea. Duela lau urte, bere bizimoduaren oinarriak kolokan jarri zituen gazte asanbladan hasi zenean: "Hamazazpi urterekin, gurasoei bizi zara eta ikastolaren printzipioen arabera aritzera ohituta zaude; gaztetxean, aldiz, eskema horiek guztiak apurtu eta zerotik hasten zara". Dioenez, Gasteizko beste eragile batzuetan zaila izaten da 16-17 urteko gazteak parte hartzen ikustea, eta zentzu horretan "kristona" iruditzen zaio etxe okupatuaren mugimendua.

"Hasieran 'ikastolero' deitzen ziguten; gure aurretik, Gaztetxean ez zen euskararik entzuten"

EKAITZ LOTINA
GAZTETXEKO KIDE OHIA

"Ordura arte duzun bizimoduaren eskemak apurtzen dizkizu gazte asanbladan hasteak"

KEPA PEREZ
GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

Autogestioa eta asanblearismoa giltzarri, berezitasun propioak bizi izan ditu belaunaldi bakoitzak. Gogoan du Ekaitz Lotinak bere aurrekoek "ikastolero" deitzen zietenean, gaztetxean euskara sustatzen Gasteizko lehenengo gazte euskaldunak izan zirenean: "Ordura arte, euskararik ez zen entzuten bertan, eta hemengoa ez zen euskaldun bati *El vasco* esaten zioten...". Bi hamarkada baino gehiago pasa dira, eta Gaztetxeko euskararen astea iragarri berri dute Kepa Perezen asanblada-kideak. Dokumental berria esku artean, atzera begira eta aurrera doaz.

ENTZUN ELKARRIZKETA: HIRINET.NET



AZAROAK 7 NOVIEMBRE
20:00

"SABA" Cía. Lali Aiguadé

Danza
6€ant/8€taq

AZAROAK 6 NOVIEMBRE
19:00

"YI-HA" Cía Los moñecos

Danza/Familiar 6€ant/8€taq

AZAROAK 8 NOVIEMBRE
20:00

"SALTO" Metrokoad-roka

Antzerkia euskeraz
6€ant/8€taq

21:30

Bitchin Bajas

Musika





Legutioko gaztelekuan egin zuten lehenengo Gazteak Plazara egitasmoa, joan den urriaren 23an. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Eskolatik plazara, zubi bat

Gazteak Plazara egitasmoa jarri du abian Arabako Bertsozale Elkarteak, bertso-eskoletako gazteei plazarako jautzia laguntzeko; Zalduondo eta Aramaion izango dira hurrengo saioak. **ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA** LEGUTIO

Proiektuak martxan jartzea bezain garrantzitsua da proiektu horien arteko lotura egonkorra sortzea. Baditugu bertso eskolak Araban, han-hemenka, jende gazte gogotsuz beteta. Baditugu bertsoan egiteko plaza ederrak ere, gero eta bertsozale eta euskaltzale gehiagoren bilgune direnak. Bertsoa lotzen ditu bi eremuak, baina batzuetan ez da nahikoa: laguntza apur bat behar izaten du bide horrek. Asmo horrekin sortu da Gazteak Plazara egitasmoa: bertsoan egiteko gogoia duten bertso-eskoletako gazteen-tzako "igogailu" funtzioa bete nahi du. Plazetako oholtzetara gustura igotzeko eskailera-maila izateko asmoa dauka.

Hiru saio berezitan gauzatuko da, funtsean, Gazteak Plazara. Legutioko gaztelekuan egin zen lehenengoa, urriaren 23an. Eta azaroan etorriko dira beste bi saio ere, Zal-

Hurrengo saioak

'GAZTEAK PLAZARA'

Azaroaren 6an, 19:00etan,
Zalduondoko Lazarraga etxean.

Asier Rubio, Irati Ruiz de Pinedo,
Maria Izaga eta Unai
Etxenausiarekin.

Azaroaren 27an, 19:00etan,
Aramaio Sastiña aretoan. Xabi

Igoa, Jon Sanchez, Maddalen
Arrausi eta Iñaki Lertxundirekin.

duondon eta Aramaion. Ondoren, bertsozaleen, antolatzaileen eta bertsolarien beraien esku egongo da plazaz plaza ikustea.

Agurainetik, Euskal Herri osora

Beste alde batetik, bertso eskolak ohikoa duten babesetik, lau hormen artetik, aterako dira azaroaren

14an, Agurainen. Eta ez dira bat edo bi soilik izango: Euskal Herriko bertso eskolen eguna egingo da bertan. Egun osoko egitarauaz gozatzeko aukera egongo da, festa-giroan; Jo ta Fa txarangarekin bertso-poteoa hasiko da, eta kantuan ariko dira hainbat bertso-eskolatako ordezkariak. 14:30ean herri bazkaria egingo dute. Bertan Bertsostruk proiektua, bertso-eskolen arteko harremanak estutzeko asmoa duena, ere aurkeztuko dute.

Bazkalostean ere jarraituko du jaiak, Bertsostruk egitasmoaren aurkezpena eta gero, Sudurgorriak taldearekin tabernaz taberna ibiliko baitira bertsozaleak. Lautadako bertso-eskolak, gainera, lo egiteko aukera eskainiko du. Lo egiteko zein bazkarirako txartelak lortzeko eta bertso jaialdiaaren inguruko beste argibide guztien berri jaso du www.bertsosarrerak.eus webguneak.

Azken zozketetako irabazleak

Peiremans kontzertua

Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz).

Errigora saskia

Unai Romano Igartua (Gasteiz).

Salto antzezlan

Itziar Lekuona (Gasteiz).



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak



Hala Bedin afaria

Gasteizko Alde Zaharreko Hala Bedi tabernan **bi pertsonentzako afaria** zozketatuko du ALEAK, ostiral eta larunbat batean afaltzeko. Eman ezazu izena **azaroaren 17a** baino lehen. Hilaren 20an jakinaraziko dugu irabazlearen izena aldizkarian.



Izaki Gardenak kontzertuan

Izaki Gardenak taldeak kontzertua eskainiko du Jimmy Jazz aretoan, azaroaren 12an (osteguna), 21:30ean. Sarrera bikoitza eskuratzeko, eman izena **azaroaren 9a** baino lehen. Azaroaren 10ean jakinaraziko diogu zuzenean irabazleari saritua izan dela.

Zozketan parte hartzeko, zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun. Bestalde, nahi izanez gero (ez da derrigorrezkoa), bidali ALEA jasotzeko interesa izan dezakeen zure **lagun baten kontaktua**, eta berarekin harremanetan jarriko gara, konpromisorik gabe harpidetza eskaintzeko.



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus

Jar ezazu zure alea...

jaso ezazu zure ALEA!



ERRI GORA

Zainzuri sorta

Nafarroa hegoaldean nekazaritza eta euskara bultzatu nahi dituen Errigora ekimenaren eskutik, ALEAK bost latz osatutako **zainzuri sorta** zozketatuko du. Eman izena **azaroaren 10a** baino lehen; 13an jakinaraziko dugu irabazlea.

Norbaiti zure mezua
helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603



GASTEIZ

Jaione Ajuria

"Zorionak, Jaio! Zure irribarreak eta barregura kontagiatzeko gaitasunak ez dauka preziorik, zu bezalako lagunek ezta ere. Muxu erraldoi bat! Zure kuadrilla".



GASTEIZ

Ibai Izuetza

"Jaia hasi berri da! Zorionak, Ibai! Ariadna, Nauskia eta Cira..."



GASTEIZ

Ainhoa Fernandez de Larrinoa

"Zorionak, Ainhoa! HAMAIIKA muxu zuri eta oparirik hoberenak... paperarekin bildu ezin daitezkeenak".



GASTEIZ

Aitor Miguel Quintana

"Gure Zabalganako moxalak badauka entrenatzeko gogo, baina gero indarrak berehala hanka egiten dio... Intentzioa da kontuan hartu beharrekoa, hori bai. Segi gogor ematen, bestela gaztetxoek aurreratu egingo zaituzte! Zorionak kuadrillaren partez".



GASTEIZ

Tania Camino

"Aurtengoan agian zoriontzeko beste kontu bat ere izango ote dugu... oraingo zurrumurruak besterik ez dira, baina agian... Zorionak Terrilas quztion partez!".



GASTEIZ

Zuriñe Gil

"Berandu bada ere, zorionak Zuriñe! GEUko laqunen partez!".

GASTEIZTARRAK ARRAUN THE WORLD

LAN SARITUEN ARGAZKI ERAKUSKETA ETA BIDAIEIEN AURKEZPENAK

ARGAZKI ERAKUSKETA
URRIAREN 30ETIK ABENDUAREN 17RA,
OIHANEDER EUSKARAREN ETXEAN

BIDAIEIEN AURKEZPENAK:
 "Lusitaniar herrialdean zehar" - AZAROAK 3, 20:00 - Oasis taberna
 "Nere begiak indotxinan" - AZAROAK 10, 18:00 - Koiika taberna
 "Ekuadorrek bizitza malte du" - AZAROAK 17, 19:00 - Urbeltz taberna
 "Haurren herriak" - AZAROAK 24, 20:00 - Hordago taberna
 "Etxalde baten okupazioaren kronika" - ABENDUAK 1, 20:30 - Zurrupa taberna

oihanedereuskararenetxea.eus

WIKIMEDIA

GEU

Sarriena

Diario

radio

vitoria

ORGANIZADOREA: OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

ARGAZKIAK: AITOR MIGUEL QUINTANA

MAKETA: AITOR MIGUEL QUINTANA

ARGAZKIEN BERTSIOA: AITOR MIGUEL QUINTANA

ARGAZKIEN BERTSIOA: AITOR MIGUEL QUINTANA

HITZ GEZIDUNA



	*		Barazki lekadun		Ortuak	
	Tripa		Itsas ugaztun handia		Aintzira	
	Latz					
	Pl., Austra- liako ugaztun					
Anker		Hitz- aspertua				
Komentuko buru		Dardara				
					Utik!	
					Behorra arreske	
Ipar EH-n, eskumutur						Kontso- nantea
Udaletxea						Bizkaiko ibaia
					Hitz, berba	
					Ikasturtea- ren hasieran	
Eragiten duena						
Xafiak						
					Nor deklinabide kasuaren atzikizia	

* Barrundiako dorrea.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

P	L	A	K		K	A	V
		E	R	A	G	I	E
U	D	A	L	A		E	L
		U	K	A	R	A	I
P	R	I	O	R	E		U
		K	A	L	A	K	R
				Z	A	K	A
		S	A	B	E	L	A
				L		L	B

SUDOKUA

8	1	9	6	3	7	5	2	4
4	6	3	2	8	5	7	9	1
2	7	5	1	9	4	3	6	8
9	8	2	3	4	1	6	5	7
3	5	1	7	2	6	4	8	9
7	4	6	9	5	8	1	3	2
6	3	8	4	1	2	9	7	5
1	2	7	5	6	9	8	4	3
5	9	4	8	7	3	2	1	6

GOITIBEHERA

A pyramid of 10 boxes containing the letters K, A, I, A, L, D, E, D, E, L, I, K, A, I, D, E, A, L, D, I, A, D, I, R, A, A, R, D, I, A, M, A, D, A, R, I, D, I, M, A, R, R, A.

SUDOKUA

	9		8					
		7						
6	3				2	9	7	
		6	9		8		3	
		1				4		
	8		3		1	6		
	7	5	1				6	8
						7		
					7		2	

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHHERA

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.

1. Nasak edo kaiak dauden eremu. 2. Amurrioko kontzejua. 3. Ideien munduari dagokio. 4. Sasoi, garai, aro. 5. Erne, kasu! 6. Daude. 7. Ahariaren emea. 8. Fruitu mota, udarea. 9. Dimakoa duzu honakoa.



SAIOA FERNANDEZ DE ARANGUIZ

Peiremans

Gasteiz. Ostirala 6, 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

AZAROAK

6

AZAROAK

12

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Bidelapurrak

Gasteiz. Larunbata 7, 19:00etan, gaztetxean. Pelax, Montauk eta beste hainbat talderekin.

Izaki Gardenak

Gasteiz. Osteguna 12, 21:30etan, Jimmy Jazz aretoan.

ANTZERKIA

'Salto', Metrokoadroka taldearekin

Gasteiz. Igandea 8, 19:00etan, Baratza aretoan.

IKUS ENTZUN

'Bingen', filma eta solasaldia

Gasteiz. Asteazkena 11, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean. Ander

'Odola eta ardoa' ikuskizuna

Gasteiz. Asteartea 10, 20:30etan, Parral tabernan. Gaizka Amondarain, Manex Agirre, Marco Bianchi, Jon Aranburu –argazkian–, Joseba B. Lenoir eta Napoka Iriarekin.



BERTOL ARRIETA

Odriozola zuzendari eta gidoilariarekin.

DANTZA

Dantza plazan

Zigoitia. Larunbata 7, 22:00etan, Manurgako plazan. Martin Deunaren jaien barruan.

HAURRAK

'Kantuz eta kontuz' ipuin kontaketa musikatua

Gasteiz. Larunbata 7, 12:00etan, Aldabe gizarte etxean. Antton Aranburu eta Sonia Verarekin.

Gazte Zinemaldia

Ozeta. Ostirala 6, larunbata 7 eta igandea 8. Otaza auzoko Garaionen. Grabaketak eta edizioa. Kepa Errasti aktore eta zinemagilearen eskutik.

Familian euskaraz jolasean

Agurain. Larunbata 7, 17:30etan, AEK Euskal Txokoan. 3 urtetik gorako haurrentzat. Izena emateko: AEKn edo 607628342 telefonon.

'Klasikoak? Bai, noski' ipuina

Gasteiz. Asteartea 10, 18:00etan, Judimendi gizarte



ALEA

'Ardoa EzaguStuz' ikastaroa

Gasteiz. Ostirala 6, 16:00etatik 20:30era, Oihanederren. Ardoaz

disfrutatzeko zentzumenen bidezko ebaluazio ikastaroa antolatu dute EHUK eta Oihanederrek. Ikastaroa

teoriko-praktikoa izango da. Azalpenekin batera ardo ezberdinak dastatuko dira. Aurretik izena eman behar da.

etxean. 4-8 urte bitartean. Iñaki Carretero ipuin kontalariarekin.

BERTSOLARITZA

'Gazteak plazara' egitasmoa

Zalduondo. Ostirala 6, 19:00etan, Lazarraga etxean. Asier Rubio, Irati Ruiz de Pinedo, Maria Izaga eta Unai Etxenagusia.

IKUS-ENTZUN

'Nere begiak Indotxinan' diaporama

Gasteiz. Asteartea 10, 18:00etan, Koxka tabernan. Oihaneder Euskararen Etxea eta Sarburu kultura elkartearen eskutik.

HITZALDIA

'Ipuina eta heziketa emozionala'

Gasteiz. Osteguna 12, 18:30ean, Salburuko gizarte etxean. Juan Carlos Alonso adituarekin.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Porco Bravo eta Toni Metralla y los Antibalas

Gasteiz. Ostirala 6, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

Ensemble Sinkro

Gasteiz. Larunbata 7, 12:30ean, Arte Ederren museoa.

The Allnighters eta Highlights

Gasteiz. Larunbata 7, 19:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

ANTZERKIA

'Bianco su Bianco', Finzi Pasca taldearekin

Gasteiz. Ostirala 6, 20:30ean, Principal antzokian.

'Casanova, memoria de un libertino'

Dulantzi. Larunbata 7, 19:30ean, kultur etxean.


'Yi Ha', dantza saioa

Gasteiz. Ostirala 6, 19:00etan, Baratza aretoan.

'La Cenicienta que no quería comer perdices', Los Moñekos taldearekin

Gasteiz. Asteartea 10, 19:00etan, Ibaiondon.





bernaola festival 2015

XII edizioa

urria / azaroa

28	Basuromio instalazioa	12	Ensemble This / Ensemble That	22	Musikari Gazteak IV
30	J. L. Galiana & C. D. Perales	14	Tamgram / Musikari Gazteak II	23	Séverine Ballon
31	Michelle Man & James Hewison	15	Musikari Gazteak III	24	Luis Tabuenca
01	Basuromio / Akusma	16	Alfonso Gómez	26	Ensemble TaG
05	Musikari Gazteak I	19	Peter Veale	27	Musikene Orkestra
07	Ensemble Sinkro	21	Sigma Project	30	Guridi Garaikidea

www.bernaolafestival.com



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava